

WESTERN GENEROA EZ ZEGOEN HILDA, LOTAN BAIZIK

Western-a, genero zinematografiko nagusi eta *purua* bezala kontsideratua izan da beti. Beste generoeekin alderatuz, literatura, antzerki eta argazkigintzatik edaten ez duelako, batik bat. Zinemarekin batera jaiotako generoa azken finean. 60ko hamarkadan zinema aretoetan bizpahiru aldiz (gutxienez) ematetik, beherakada nabarmena jasan duen genero bilakatu da, eta gaur egun askok ia hiltzat ematen dute. Baina ziur hilda dagoela?



Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Sorrera

Genero honen sustraiak 1903. urtean kokatu daitezke, zinema mutuaren garaian hain zuzen ere. Edwin Stanton Porter-ek *The Great Train Robbery* filma estreinatu zuenean. Hortik aurrerako western gehienek antzeko ezaugarriak zituzten: AEBetako mendebalde zaharrean kokatzen ziren eta Ozeano Pazifikoko kostarantz izandako hedapenaren eraginez, kolono berriek ezezagunak ziren lurak esploratzen zituzten. Ezinbesteko gaia, jakina, indigenen aurkako borroka zen. Gehienetan, benetako gertakizunen kontakizun batere zehatza eta faltsua eskaintzen zuten, baina tira, batzuetan beraien izen eta ohiturak eza-gutzeko balio izan digute behintzat.

Une loriatsuenak 40 eta 50eko hamarkadak izan ziren. Generoan eragina izan zuten zuzendari horietako asko gaur egun zinemaren historiako garrantzitsuenetarikoa bilakatu dira. Barkaezina lerro hauetan John Ford ez aipatzea. Westernaren arauak ezarri zituen zuzendaria izan zen eta balore zein espiritu amerikarra zinemaren bidez ondoen azaldu zituen zinemagilea da askorentzat. Haren peli-

kulen epikak ondorengo belaunaldietako zuzendari guztiengan izan zuen eragina. Howard Hawks-engan, esaterako. Hawksen *Red River*, *Río Bravo*, *Río Lobo* filmek mugarri bat ezarri zuten. Izen asko aipatuko nituzke: William Wellman, Anthony Mann, Fred Zinnemann, Nicholas Ray, King Vidor eta gutxitan aipatzen den eta nire ustez erabat gutxietsia dagoen Sam Peckinpah handia.

Beherakada

Urteak pasa ahala, genero honen beherakada eragin zuten faktore batzuk azaltzen hasi ziren; 60ko hamarkadan esaterako, urte nahasiak izan ziren Ameriketako Estatu Batuetan, bai sozialki eta baita politikoki ere. Horren eraginez, kate-erreakzio moduko bat jasan eta estudio handien makineria ahultzen hasi zen. Ikusleak zuen interes hori itzali eta generoaren alderdi berri batzuk garatzen joan ziren. Western europarra edo *Spaghetti* western bezala ezagutzen zena adibidez. Western amerikarreko klase klasikoak baliatuz, mitoaren bidez, estilo propioa sortu zuten. Kritikari askoren ustez, azpigenero

honek zinea egiteko modua aldatu zuen. Ordura arte, filmetan entzuten genuen musika (salbuespen batzuk izan ezik), artisten ulermenera mugatua zegoen. Ennio Morricone eta genero honetarako konposaturiko soinu banda horiek oso ezagunak egin ziren. Jatorrizko soinu banda funtsezko osagai bihurtu zen akziozko eszenei indarra emateko. Muntaiarekin jokatzuz, bakanduriko sekuentziak filmeko klimax une bihurtzeko ibilgailu bezala balio zuen musikak.

Baina hainbat korrante kritiko zinemari beste ikuspuntu batetik begiratzen hasi zitzaizkion. Esanahi sakonagoen bila, westerna desagertuaren amilde-gira gerturatu zuten, sortzen zituen giro horiek sinpleak, errepikakorrek, matxistak eta xenofoboak zirela argudiatuz. Bigarren Mundu Gerraren ostean, estilo tradizional hori zalantzan jartzen hasi ziren, elementu narratibo eta estilistiko berriak deskubrituz eta istorio errealistagoak sortzeko beharra piztuz.

Gaur egun...

Argi eta garbi, azken 25 urteetan western gutxi estreinatu dira. Ados. Baina



*Beste generoekin gurutzatuz eta
perspektiba eta estilo berriak
erabiliz bere burua aberasten
jakin du westernak.*



kalitate maila antzemateko, izenburu guztiekin batez besteko bat egingo bagenu, beste generoekin alderatuz behintzat, oso maila altua emango lukeela uste dut. Beste generoekin gurutzatuz eta perspektiba eta estilo berriak erabiliz bere burua aberasten jakin du. Egiten al dira genero honetako filmak gaur egun? Eta egiten direnak ganorazkoak al dira? *The Assassination of Jesse James By The Coward Robert Ford* (2007), *Unforgiven* (1992), *Django Unchained* (2012),

» *Spaghetti* westernak western amerikarreko kluxe klasikoak baliatuz, mitoaren bidez, estilo propioa sortu zuen. Kritikari askoren ustez, azpigenaro honek zinea egiteko modua aldatu zuen

Appaloosa (2008), *True Grit* (2010), *Meek's Cutoff* (2010), *The Proposition* (2005), *The Revenant* (2015), *Hell or High Water* (2016) *Rango* (2011), *The Three Burials of Melquiades Estrada* (2005), *Slow West* (2015), *The Homesman* (2014), *The Hateful Eight* (2015), *3:10 to Yuma* (2007), *Bone Tomahawk* (2015) bezalako izenburuak adibide gisa jarritz, baiezko biribila esango nuke; ezin esan beraz, western generoa hilda zegoenik, lotan baizik. ■

gure artean 
euskaraz

Euskaraz zinemak duen gaur egunekoaren bako guztietara zabaldu da, eta nahi du gure adierazteko eta lortzeko arabil dezagun. Egia dezagun hainbat euskarazkin eta euskaraz laguntza, hildakoen, neska-mutillaren, faren, ... erabiltzeak. Gure modura.

Bizkaia
Euskaraz
Zinemaren

www.bizkaia.eus

